

Valentziako EMT Irizar i2e probatzen arituko da uztail bukaera arte

Ormaiztegin, 2016ko ekainaren 22an

Irizarren i2e autobus %100 elektrikoa Valentzia hiriko hainbat lineatan ibiliko da bideragarritasuna aztertzeko eta lehen aldia da EMTk ezaugarri hauek dituen autobus bat probatzen duena.

Irizar i2e EMTren ohiko lineatara gehituko da ekainaren 22an eta uztail bukaera arte probatuko dute ohiko zerbitzuan errendimendua neurtzeko. Hitzarmen honek Udaleko Garraio Enpresak (ETM) iraunkortasunaren eta ingurumenarekiko errespetu handiaren alde egiten duen apustua erakusten du.

EMTko presidente Giuseppe Grezzik gogorarazi du “EMTk autobus elektriko bat probatzen duen lehen aldia da” eta azpimarratu du “denbora berreskuratu nahian gabiltza, urte asko galdu baititugu garraio publikoaren aldeko sustapena egin gabe”.

Bestalde, EMTko zuzendari-kudeatzailea Josep Enric Garciak adierazi du haien lehenetasunetako bat oraingo autobusak ordezkatzeko dela eta horretarako ingurumenari kalte gutxien egiten dioten teknologiak aukeratzea. *“Kalkuluak egiten ari gara jakiteko zenbat kostatuko litzaigukeen autobus elektriko edo hibrido bat erostea autobusak ordezkatzekoan. Urteetan ez ditugu berritu eta datorren urtean egingo dugu” esan du.*

Hector Olabe Irizar e-mobilityko Zuzendariak poza adierazi zuen proiektuagatik “oso pozik gaude gure autobusa gero eta hiri gehiagotan martxan ikusita”. *Valentziaren kasuan guretzat esanguratsua eta positiboa izango da klimatizazio sistemaren funtzionamendua egiaztatzeko eta autobusaren energia kontsumoan nola eragiten duen ikusteko”*